

**XX eta XXI. mendeetako Euskal Herriko Bertsolari
Txapelketa Nagusiak:**

euskararen presentzia

Egilea: Nahia Ibarzabal

AURKIBIDEA

	3 SARRERA
	4 MARKO TEORIOKOA
	16 METODOLOGIA
	19 ANALISIA
21	ONDORIOAK
22	ERANSKINAK
	45 BIBLIOGRAFIA

SARRERA

Bertsoarekiko dugun zaletasuna tarteko, bertsolaritzaren inguruko lana egitea izan da gure asmoa. Horregatik, sakontze egitasmo honen helburu nagusia, lanaren izenburuak dioen bezala, XX. eta XXI. mendeko Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusietan euskarari zenbat abestu zaion aztertzea da, mendeen artean desberdintasunik dagoen eta euskararekiko agertu duten jarrera ikusteaz at.

Lana atal ezberdinez osatuta dago. Lehendabizi marko teorikoa egin dugu, bertsolaritzak, euskarak eta txapelketek izan duten bilakaera azaltzeko asmoz. Ondoren, metodologiaren atalean, helburua lortze bidean ikerketa hau aurrera eramateko egin beharreko pausoak azaldu ditugu. Azkenik, analisi eta ondorioen atalean, ateratako emaitzak ikus daitezke eta ikerketaren azken orrialdeetan, eranskinak. Hots, ikerketarako bertso baliagarriak.

Besterik gabe, guk lan hau egiten gozatu dugun haina gozatu dezazuela zuek ere irakurtzen!

MARKO TEORIKOA

1-BERTSOLARITZAREN BILAKAERA

Esteban Garibay¹ historialariak dioenez, XIV. mendeko gizaldia “andere inprobisatzaileen” mendea izan zen. Garzia, Egaña eta Sarasuak (2001) diotenez, Manuel Lekuonaren obran hainbat aldiz aipatzen omen da izaera “neolitikoa” edo “prehistorikoa”. Artzain aroan sortua dela dioelarik. Azurmendik (1980) berriz, Bizkaiko Foru Zaharreko (1452) bi aipamen azpimarratu zituen. Gaineratzen dutenez, bertsolaritzaren korpus dokumentatu bat nahi bada, XVIII. mendearen amaierara jo behar da. XIX. mendea berriz, hobetuxego dokumentatuta omen dago.

Garzia, Egaña eta Sarasuak (2001) diote, XX. mende hasierako bertsolaritza eta amaierakoa guztiz desberdinak zirela. Aldaketak tarteko, mende hasieran idatzizko bertsolaritzak zuen pisua eta mende amaieran aldiz, bat-batekoak. Bertsolariarentzat ere entzuleria baten aurrean bertsoak bat-batean asmatzeko gaitasuna daukana hartzen da (Garzia,2012).

Juan Mari Lekuonak (1982), bertsolaritzaren historian bost epe nagusi bereizten ditu:

1-ERROMANTIZISMO AUREA (1800-1839). Garai honetan nekazari giroa gailentzen da. Bailara eta herrialde mailan zuten soilik eragina bertsolariek.

2-ERROMANTIZISMOA (1839-1876). Karlisten arteko bi gerrateak kokatzen dira une honetan.

3-PIZKUNDE-AUREA (1876-1935). Karlisten bigarren gerrateaz geroztik, Espainiako gudu zibila arte. Gizarteari dagokionez, aldaketa handiak ematen dira. Industria giroa, abertzale planteamenduak eta bertsolari kaletartu berriak.

4-PIZKUNDEA (1935-1968). Lehen bertsolari eguna ospatu zen 1935ean. 1968ko borroka armatuak eta errepresioak giro berria sortu zuten. Bertsolari kaletartua eta Euskal Herri osoko entzulego berria.

5-BERTSOLARITZA SOZIALA (1968-1977). Gizarteari dagokionez, baserriaren atzerakada nabarmentzekoa da. Demokraziari deiarra, euskal ezkerren mugimendu berriak, euskal nazionalismoaren planteamendu gogorragoak eta gaien politizazioa, beste gaiak baztertzerainokoa.

Gartziak (2000) ostera, bestelako sailkapen bat proposatzen du, bat-bateko bertsolaritzaren bilakaera erakusten duena.

1-HISTORIAUREA (Hastepenetatik-1990). Pernando Amezketarra, Etxahun, Xenpelar...

¹Esteban Garibay (1533-1599). Historialarien erreferentzia sarean dago eskuragarri: <http://bdb.bertsozale.eus/orriak/get/2-bertsolaritzari-buruz-historia>

2-BERTSOLARITZA MARJINALETIK LEHEN TXAPELKETARA (1900-1935).

Txirrita, Kepa Enbeita...

3-ISILTASUNAREN AROA (1936-1945).

4-BIZIRAUPEN AROA (1945-1960). Basarri, Joxe Lizaso, Lazkao Txiki, Xalbador...

5-ERRESISTENTZIA AROA (1960-1975). Lazkano, Agirre, Mattin...

6-HERRIARI KANTATZETIK PUBLIKOARI KANTATZERA (1980-1998).

Amuriza, Egaña, Sarasua, Peñagarikano, Sebastian Lizaso...

7- BERTSOLARITZA MULTIPOLARRA (1999-...). Maialen Lujanbio, Unai

Iturriaga, Igor Elortza, Amets Arzallus...

Ikusi dugun bezala beraz, XX. mendearen amaieratik gerora, bat-batekotasunak du indarra bertsoaritzan. Gu ere ikerketa honetan, bat-batekotasun horri erreparatzeaz gaude egia esan. Txapelketa Nagusietako bat-batekotasunari alegia. Garziaren (2012) arabera ere, “bertsolari lehiaketa guztien artean garrantzitsuena Euskal Herriko Txapelketa Nagusia da, lau urtean behin egiten dena”. Iritzi bera dator *Bat-bateko bertsoaritzan* (2001) izeneko liburuan ere. Euskal Herriko Txapelketa Nagusia da, bertsoaritzaren munduan, bertso lehiaketa gorena.

Xenpelar Dokumentazio Zentroak bildu duen informazioari kasu eginez, lehen txapelketa 1935.urtean egin zen eta harrezkero, beste hainbat txapelketa burutu izan dira: 1936an, 1960an, 1962an, 1965an, 1967an, 1980an, 1982an, 1986an, 1989an, 1993an, 1997an, 2001ean, 2005ean, 2009an, 2013an eta 2017an, hain zuzen.

Esan bezala, lehen txapelketa 1935ean egin zen “Euskaltzaleak” Elkartek antolatuta. Bigarrena, urtebete geroago. Ondoren ostera, gerra zibilak etenaldia eragin zuen eta 1960an ekin zion “Euskaltzaindiak” berriro txapelketak antolatzeari. 1986tik aurrera, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen gidaritzapean egin dira (Larrañaga, 2013).

1935ean Donostiako Poxpolin Antzokian egindako txapelketan, Inazio Eizmendi “Basarri” izan zen txapelduna. 1936an, Donostiako Victoria Eugeniean egin zen eta Jose Manuel Lujanbiok “Txirrita” jantzi zuen txapela. “Gerra aurreko bi txapelketetan, herri tradizio hutsezko bertsoaritzan (Txirrita) eta eskolatuaren (Basarri) arteko talka agerian jartzen da” (Larrañaga,2013).

Baina, gerra-zibilaren (1936-1939) eraginez txapelketa eten egin zen. Larrañagak (2013) dio, gerra ondorengo bertso ilunaldia luzea izan zela. Gerra ondoko lehen urteetan euskararekin zerikusia zuen guztiarekiko beldurra zelako nagusi eta horrek bertsoaritzaren itomena eragin zuen. “Bertsoaritzan ia isildurik utziko du gerrate-zibilak”.

1936-1945 urteen tartea, isiltasunaren aroa izan zen. Aldiz, biziraupen aroa 1945-1960 bitartea. Biziraupenaren aro honetan, euskarak eta euskararen aldarriak bazuen konnotazio politikorik eta euskararen bidez sentimendu isil askori adierazpide bat

ematen zitzaion. Bertsolaritza, denbora para izatetik, bestelako itzala izatera igaro omen zen. Bertsolariek ere beren izaera herrikoiaren ezaugarria herriz herri zabaldu zuten.

Hirurogeiko hamarkadan, “Euskaltzaindiak” lortu zuen Bertsolari Txapelketa antolatzeko baimena. “Euskararen goratzea izango da bertsolariari estimatuko zaiona, batez ere euskararen zapalkuntza bizi izan duen herritargo xehean”. 1960,1962,1965 eta 1967ko txapelketetan, sentimendu abertzalea joan zen indartzen eta euskalduntasunaren gogoia berpizten.

1975etik gerora, Franco hil eta ondorengo urteetan, bertsolariak mitinetan, jardunaldietan, manifestazioetan... parte hartzeko gonbitak jasotzen hasi ziren. Garai hauetan, borroka armatua ere, indartzen zihoan eta bertsolaritza politizatu egiten da. Abertzaletasunaren defentsa sutsua egiten da eta arazo sozialak ere lekua hartzen dute.

1980 ingurua, berrikuntza aroa izan zen bertsolaritzarentzat. Aro honetan aipatzekoa da Xabier Amurizaren eragina. Berau izan zen berrikuntza ekarri zuena. Bertsoak, kutsu poetiko handia hartu zuen eta poesia, doinua eta errimen jokoak indarra hartzen hasi ziren. Amuriza aitzindari zela garai hauetan hitzaldi eta ikastaro asko antolatzen hasi ziren. Bertsolaritzaren alde eta baita euskararen alde ere. Garai honetan, nabarmentzekoa da bertso eskolen eragina. Bertso eskolak, lagunarte euskalduna bilatzeko esparru gisa ikusten hasi ziren.

Jarduera Komunitateari (JK) Wengerek ematen dion definizioa aintzat hartuta, bertso eskolak Jarduera Komunitateak direla esatera ausartuko gara. Dioenez, JK-ak zaletasun bera konpartitzen duten pertsonen osatutako taldeak dira.

Miren Artetxek (2014) dio, Lapurdin, bertso eskola dela hasi eta buka euskaraz garatu daitekeen jarduera bakarrenetarikoa. Bertso eskolan gazteak kontziente direla Jarduera komunitatearen baitan gizartearekiko ematen diren bi mutazio nagusiz: euskara erabiltzeko joeraz eta gogoetarako joeraz. Bata eta bestea elkarreaginean garatzen direla, bai taldean eta bai norbanakoarengan.

Olatz Larrinagak (2015) ere, Algortako Bertso Eskola (ALBE) euskalduntasunaren oinarria eta elikagaia dela dio. Urtero hainbat euskaldun biltzen omen dira bertsoa aitzaki hartuta, euskaraz naturaltasun osoz egiteko eta euskalduntasunaren sarea osatzeko.

Aurreko orriotan ikusi dugu, bertsolaritzak hainbat urtetan barrena egindako ibilbidearen laburpena. Denbora dena aldatzen duela dio esaerak eta bat gatoz. Larrinagak (2008) dioenez, euskal kulturaren esparruan gertatutako aldaketak, beti etorri dira euskal gizarteak bizi izan dituen egiturazko aldaketekin batera. Xabier Aierdik (2007) gaineratzen du, bertsolaritzan “continuum” bat osatzen duten hainbat ezaugarri daudela: tradizioa, herri kultura eta modernitatea eta “continuum” horretan, bertsolaritza tradizioaren erroak dituen ekimen modernoa dela, landa kultura eta kaletar kultura biak fusionatzen dituen.

2-EUSKARAREN HISTORIA: XX. eta XXI. mendeak

1914an, Kataluniako Mankomunitatea osatu zen. 1917an, Arabako eta bereziki Gipuzkoako eta Bizkaiko diputazioek (Nafarroa baztertuta gelditu zen), mankomunitatea sortzeko bidea urratu zuten. Administrazioan euskararen erabilera dokumentatzen da eta Eusko Ikaskuntzaren (1918) eta Euskaltzaindiaren (1919) sorrera dira aipatzekoak.

1923an Primo de Riverak diktadura aldarrikatu zuen (1923-1930). Periferietako nazionalismoaren agerraldi politikoak erreprimitu zituen. Espainiako hizkuntza ez-gaztelaei buruz ordea, zalantzan egon zen baina garai hartan Gaztelania ez zen askok ulertua. Euskara merezimendu gisa baloratzen jarraitu zuten (administrazioan etab.). Testuinguru honetan, Gipuzkoako abertzale askok autonomiaren borroka bigarren mailan utzi eta euskara lantzeari ekin zioten. Orduan (1927an) sortzen da Euskaltzaleak elkarteak.

Bigarren errepublikan (1931-1936), euskarak urrezko aro bat ezagutu zuen, literaturari eta kazetaritzari dagokionez. 1936ko gerra-zibilaren ondorioz tamalez, euskararen ofizialtasuna erori egin zen eta hizkuntza ez-gaztelaeukiko ezinikusia areagotu zen frankisten aldetik.

1960ko hamarkadatik aurrera berriro ere, euskarak balio sinboliko ikaragarria hartu zuen, euskal herritarren komunikazio tresna izateagatik. Franco hil zenerako, Euskal Herrian 144 ikastola zeuden (baldintza zailetan irekiak) eta guztira 33.546 ikasle. Ikastolekin zuzenean loturik gau-eskolak. Euskaraz alfabetatzeko lehen kanpaina, 1966an abiatu zuen Euskaltzaindiak eta hauxe izan zen AEK eta Euskalduntze Koordinakundearen abiapuntua.

Aitzitik, Nafarroak euskarari buruzko bere legea dauka eta hiru hizkuntza eremu ezartzen ditu: Euskalduna (euskara ofiziala da gaztelaniarekin batera), mistoa (estatus anbiguokoa) eta ez-euskalduna (gaztelania da ofiziala). Egoera are okerragoa da Ipar Euskal Herrian, euskara galtzeko arrisku bizi baitago.

Teknologia berrien laguntzarekin, distantzia fisikoak desagerrarazten joan dira eta munduko edozein zonaldean gertatzen denak eragin zuzena edo berehalakoa izan dezake gure eguneroko bizitzan. Guzti hau, mundu globalizatuan bete-betean sartuta gaudelako da. “Globalizazioak eta berarekin datozen teknologia eta ikus-entzunezko komunikabide berrien hedatzeak, pentsamendu bakarra, homogeneousotasun kulturala eta kultura txikien eta hizkuntza gutxiagotuen desagertzea ekarriko du” (Virilio,1997).

Euskara ere, Europar Batasuneko hizkuntza gutxituen taldean dago eta baditu etorkizuna zalantza jartzen duten berezitasun batzuk. Esaterako, 2011ko kale neurketen arabera, euskararen erabilera soilik 13,3koa zen eta 22 urtean batez beste 2,5 puntu egin du gora (Juaristi, 2018).

Patxi Juaristiren (2018) aburuz, euskal kultura eta euskara lehen ere gaztelania eta frantsesaren ondoan bizitzera ohituta daude. Dioenez, maila txikiagoko globalizazio

prozesuei ohiturik daude. Zentzu honetan, globalizazioaren aurkako defentsa mekanismo gisa herrialde txikien identitate nazional eta lokalak sendotzen doazen heinean, hauen hizkuntzak ere sendotu egingo omen dira. “Hala ere, euskarak eta euskal kulturak ahultasun asko dituzte aro globalean bizitzen jarraitzeko”. Aburu bera konpartitzen du Fernando Savaterrek (2000) ere. Dioenez, euskal kultura tradizionalki globalizazio prozesuei lotuta egon da, tradizioko globalizazio prozesu nagusia eliza katolikoa izan delako. “Horixe izan dugu mundu guztian hedatu den elementu globalizatzaile nagusia eta neurri batean, euskaldunek bultzatua: euskaldunak eliza katolikoaren globalizazio ideologikoaren bultzatzaile izan dira; beraz, globalizazioa ez da arrotza euskaldunentzat”.

Juaristiren (2018) iritzian, euskal Kulturaren inguruan dauden ikus-entzunezko komunikabide askok baliabide ahulegiak dituzte euskarari eta euskal kulturari behar bezalako indarra eta maila emateko. “Besteak beste, euskaraz jarduten duten herri-telebista askok arazo larriak dituztelako”. Gainera, euskarazko zinemak ere hutsune larriak ditu Juaristik dioenez. Ekoizpenari dagokionez oso film gutxi egiten direlako euskaraz eta, bestalde, euskal zinemagileek erdaraz egiten dituzten filmak kanpoko etxeek ekoiztuta daudelako gehienetan. “Are gehiago, era honetako produktu gehienetan ez da euskal sentsibilitaterik edo euskal munduarekiko loturarik agertzen, ez gaietan ez adierazpen moduetan”. Filmen bikoizketa aztertuz gero, hutsunea bikoiztu egiten omen da.

Amaitzeko dioenez, ikus-entzunezko merkatu txikia egituratu gabe dago. Euskal Herriko ikus-entzunezko komunikabideen arteko harremanak urriak izateaz gain, plan orokorrik gabekoak direlako. “Euskal kulturak teknologien eta ikus-entzunezko komunikabideei buruzko egitasmo edo proiektu orokorra eta propioa behar du. Zinema, telebista eta multimedia guztiak kontuan hartuko dituen interbentzio-plana bultzatu behar da”.

3-ONDORIOA

Larrañagaren (2013) arabera, gerra aurreko txapelketan, bertsolariak jainkoari egiten dio dei euskara sendotu dezan. XX. mendearen lehen erdira arte, euskaldun onak, fededuna eta elizkoia behar zuen izan. Hizkuntza galdu ezker, jatorrizko euskaldunaren gizalegea, usadioa eta biziera galduko liratekeelako. Gerra ondorengo urteetan oster, baseritar idealizatuaren eredua hiritartu beharrak, bi munduen arteko talka sortzen du. Hiritartze prozesuak, pentsamolde tradizionalen balio arauen eraldaketa dakar. Gerraosteko txapelketak, hizkuntza marka berdinak zekartzan arren. Elizak mendeetan izandako monopolio ideologikoa galduz doan neurrian ordezkatu duen unibertso morala, fededun/ez fededun edota baseritar/kaletar binomioak indargabetzen doazen neurrian, binomio berriak sortzen dira: abertzale/ ez abertzale edota Euskal Herria/Espainia.

Ezbaia ezina da, garaian garaiko jazarpen politikoak pairatu dituztela kulturagileek. Ane Larrinagaren aburuz (2008) horregatik bete da euskal kultura esanahi politiko. Besteak

beste, euskal kulturgileen zereginetako bat, hizkuntzaren aldeko erresistentzia kognitiboa lantzea izan delarik. Gaineratzen duenez, euskal kulturgileen lana ezin da euskarak eta euskal kulturak nozitu dituzten gatazka eta lehia sinbolikoetatik bereizi. Momentuan momentuko baliabide kognitiboak baliatuta eta unean uneko baldintza soziopolitikoek baimendutako aukeretara egokituta osatu dutelako euskal kulturgileek euskalgintza deitzen den gune kognitiboa. “Gainera, Euskal Herrian, sarri askotan, egoera politikoa eta kulturala, desagokiak izan dira eta horrek eraman ditu kulturgileak, zeregin nekezak edukitzera”.

Argi dago, bai bertsolaritzak eta bai euskarak, historian zehar beherakadak eta gorakadak elkarren eskutik pairatu dituztela. Ez da kasualitatea. Euskara delako, bertsotan egiteko funtsezko tresna eta hizkuntza honek bizi duen egoerak baldintzatuko du bertsolaritza. “Bertsogintzak berezkoa du euskararen lanketa” diosku Miren Artetxe bertsolari eta ikertzaileak. Nora Barroso (2010) ere bat dator. “Hizkuntza kultura baten oinarrietako bat da. Adierazi nahi dugunaren oinarria markatzen duen hitz jokoa, esamoldeak eratzeko modua, lokuzioa, prosodia, zailtasuna...”. Gaineratzen duenez, bertsolaritza bezalako jarduera batentzako, modu tekniko batean transmititutako euskara baino askoz garrantzitsuagoa da maitasunaren bidez transmititutakoa.

4-BERTSOLARIAK DISKURTSO EGILE

Joxemartin Apalategik (2011) bertsolaritza euskal gizartearen komunikazio esparrurik bizienetako bat dela dio. Gizartearen ispilu eta iritzi sortzaile dela. Iritzi hau aintzat hartuz, bertsolaritza diskurtsoa sortzeko edo diskurtsoa zabaltzeko alor gisa identifikatuko dugu.

Izan ere, Calsamigliak eta Tusònek (2008) diskurtsoari ematen dioten definizioarekin bat gatoz: “Diskurtsoa idatzizkoa zein ahozkoa izan daiteke. Diskurtsoa jendartearen parte da eta aldi berean jendartea sortzen du. Hizkuntza erabiliz, ideiak eta sinismenak komunikatzeko prozesua da”. Hala ere, diskurtsoa unean uneko egoera sozial, politiko, kulturalak asko aldatzen duela (edo baldintzatu), behin eta berriz azpimarratzen dute bi autore hauek.

Teun A. Van Dijk-ek (2000), diskurtsoaren eremuan, hiru dimentsio barnebiltzen ditu: lehenik, hitzaren erabilera; bigarrenik, ideologiaren komunikazioa; eta azkenik, interakzio soziala. Ados gaude. Bertsolaritzan uneoro agertzen dira hiru dimentsio hauek. Hasteko, hitz bidez gauzatzen da bertsoa. Ondoren, sortu duena bota/komunikatu (abestuz) egiten du bertsolariak, publiko jakin baten aurrera eta hor legoke interakzioa.

Teun A. Van Dijk-en interakzio sozialari, beste hitz batzuekin baina garrantzia ematen dio Joxerra Garziak ere. Dioenez, komunikatzaileak ezartzen dio xedea hizketa ekintzari, baina hartzailearen onarpena behar du. “Informatu, irakatsi, persudiatu eta entretenitzea dute xedetzat komunikazio ekintza gehienek”.

Egaña, Sarasua eta Garziak (2001) diotenez, informazio sozial eta pertsonalari hausnarraldi kantatua ematen dion eremuan, bertsolariak komunikatzaile eta poetaren

arteko papera betetzen du eta entzulearekin sortzen den konplizitatearen ondorioz, bertsolaria iritzi-erreferentea bihurtzen da euskal hiztunen komunitatean.

Behin hau irakurrita, bertsolariak eta publikoak komunitatea osatzen dutela nabarmena da. Larrañagak (2013) ere komunitatearen baitako gertutasunaren ideia defendatzen du bere tesian: “Kultura ezin da “datu-tegien bilduma” izan, harreman komunitarioa bazter utzita. Kultura, finean, ulermenak antolatu eta egituratu lezakeen prozesua da, jardunbide batetik eratoritzen dena, benetako bizi-esperientzia, jendeak esan eta egiten duenetik gertu jartzen gaituen bizipena”.

Diskurtso hori, euskal hiztunen komunitateari heltzen zaio. “Euskal komunitatearen heterogeneotasuna zeharkatzen du, adin, kultur maila, lanbide eta joera ezberdineko euskaldunen abaniko zabal xamarra” (Egaña et al.,2001:55). Gaineratzen dute, bertsolaritza, baserri giroko adierazpen izatetik gizarte industrial edo post-industrialean garatzera iragan dela. Baina, komunitateari kantatzearen zentzurik zerbait gordetzen duela. “Bertsolarien hainbat emanalditan publikoaren osaketak nolabaiteko komunitate zentzu bat iradokitzen du, adien eta izaera guztietako jendea biltzen duen herri-jaien elkarteratze sinbolikoaren zentzu zaharraren (eta berriaren) baitan.

Esan bezala, egoera sozial-ekonomikoak, diskurtsoa garatzeko orduan eragina dauka. Bada, bertsolaritzan sortzailea, artista, batez beste pertsona arrunta da. Hau da, estatus sozial edo ekonomiko berezirik gabea eta ez dena bere berezko ingurunetik ez fisikoki, ez sinbolikoki, ez ekonomikoki urruntzen. “Ekonomikoki jarduera apala da bertsolariarena, eskaintza-eskari jokoak kanpoko esku-hartzerik gabe doitzen duena eta, beraz, eragile komertzial edo babes publikoarekiko menpekotasunik gabea” (Egaña et al.,2001:57).

Haatik, bertsolariak sortzen duen diskurtsoa gizarte-bizitzako alderdi askori buruzkoa da, “bizitza kantatzen du” diote Egaña, Sarasua eta Garzia bertsolariek. Diskurtso horretan, momentuaren arabera, gai batzuk pisu gehiago hartzen dute eta beste batzuk gutxiago, (ia) desagertu edo tabu bilakatzeraino.

5-AZTERTUKO DITUGUN EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIAK

Gartzia, Egaña eta Sarasuak (2001) diotenez, “Bertso lehiaketa guztietan garrantzitsuena Euskal Herriko Txapelketa Nagusia da”.

Berrikuntza arotik (1980) gerora egin diren Euskal Herriko Txapelketa Nagusiak aztertuko ditugu ikerketa burutzeko. Zehatz esate aldera, 1980, 1982, 1986, 1989, 1993, 1997, 2001, 2005, 2009, 2013 eta 2017ko txapelketak.

Izena eta Izana sarri omen doaz eskutik eta berrikuntza aroari ere zerbaitengatik eman izan zaio izen hori. Xabier Larrañagaren tesian ikusi daitekeenez, berrikuntza handiena Xabier Amurizak ekarri zuen 1980ko txapelketara. “Bertsogintza ulertzeko beste modu bat bere bertso landu eta distiratsuetan islatua”. Bertsolaritzaren aro berriari atea ireki

zion, izan ere, bertsolari batek lehen aldiz erabili zuen euskara batua bat-bateko bertsolaritzan. Alegia, egungo bertsolaritza modernoaren oinarriak berak ezarri zituen eta baita euskara batuan kantatzeko hautu kontzientea egin ere.

1982ko txapelketan, epaile eta entzuleen artean iritzi ezberdinak zabaldu ziren eta honek errezeloak sortu zituen puntuatzeko orduan. Amuriza izan zen irabazle, buruz-burukoa Jon Lopategirekin jokatu ondoren. Tirabira batzuk tarteko, Euskaltzaindiak txapelketak antolatzeari utzi zion eta bertsolariek elkarteak sortu zuten. Beraz, 1986ko txapelketa izan zen bertsolarien elkarteak antolatu zuen lehen txapelketa eta aipatu beharra dago, urte honetan hartu zuela lehendabizikoz parte emakume batek txapelketan. Kristina Mardarasek. Txapelketak, arreta erakarri zuen eta EITBk saioaren zati bat zuzenean eskaini zuen.

1989ko txapelketan, Jon Lopategi izan zen txapeldun eta txapelketa honetatik aurrera, lau urtez behineko maiztasunarekin hasi ziren antolatzen. Hau horrela, 1993ko txapelketa jokatu zenerako, bertsolariak, euskal kulturaren pertsonaia ezagunak ziren.

90eko hamarkadatik gaur egunera bitartean, gaiak gero eta anitzagoak izan dira, kultur janzkera bat eskaintzen diote bertsolariari eta gizarte gertaeren gainean hausnartu behar izaten du. Gaien edukiak, gizarteko gertaerekin zerikusi handia dute eta bertsoaren mailak gorakada bizia pairatu du.

Interesgarria iruditzen zaigu, pertsonaiak jakinek txapelketa hauek nola bizi izan zituzten edo zer gogoratzen duten jakitea. Horregatik, testigantza eta pasarte desberdinez beteko ditugu ondorengo orrialdeak.

1980ko EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

Xenpelar Dokumentazio Zentroaren arabera, 1980ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala, urtarrilaren 6an ospatu zen, Donostiako Karmelo Balda pilotalekuan. Zortzi bertsolarik hartu zuten parte (Amuriza, Azpillaga, Enbeita, Etxeberria, Garmendia, Gorrotxategi, Larrañaga eta Xanpun) eta Xabier Amuriza izan zen final horretako txapela jantzi zuena.

Angel Mari Peñagarikanok² dio, egun horretan, Amurizarekin maitemindu zela: “Denek harritzen baninduten ere, bazen bat halako zirrara sortu zidana aurreko saioetan: Amuriza”.

Honako ofizioa egin omen zuten Amurizak eta Garmendiak. Garmendia, kaiolan zegoen txoria zen eta Amuriza berriz, kaiolan pausatu zena.

Amuriza:

² Peñagarikano, Anjel Mari (2017). “1980ko Urtarrila zen, guretzat ilbeltza”. *Bertsolari Aldizkaria*, 107, 81-88

Sakontze egitasmoa 2019

Txori bat preso kaiolan eta
ni bakearen usua,
bihotz-bihotzez eskaintzen dizut
libertadeko musua

Garmendia:

Biok batera joan gaitezke
laguntxo basorik baso,
edo bestela nik ere nahi dut
zurekin gelditu preso.

“Hauxe izan zen nik betirako gogoan hartu nuen txapelketa” (Peñagarikano).

1982ko EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1982ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala, abenduaren 19an ospatu zen, Euskaltzaindiak antolatutako azkena izan zelarik.

Donostiako Karmelo Balda pilotalekuan burutu zen, zortzi bertsolarik parte hartu zutelarik: Lazkanok, Sebastian Lizasok, Peñagarikanok, Txomin Garmendiak, Amurizak, Lopategik, Jon Enbeitak eta Jon Azpillagak. Finalisten artean, Xabier Amurizak irabazi zuen.

Txapelketa honetara sailkatzeko, antolakuntzak “A” taldea eta “B” taldearen arteko bereizketa egin omen zuen.

“Ez dakit zehazki zein irizpideren arabera egin zuten sailkapena, eta ez noa hankarik sartzera”, dio Andoni Egañak³.

“Zortzi bertsolariak irten ziren eta lehenengo pentsatu nuena izan zen, Peñak zorte handia izan zuela Millan Telleria finalera sailkatu ez izana. Finalerdietan biak jertse igualarekin azaldu ziren eta ez zen kolore arrunteko jertsea...” (Egaña)

Egañak, erne entzun omen zuen saioa eta gustura egon omen zen. Txomin Garmendiari, kartzelako bakarkako gaian jarri zioten gaia du gogoan, “Emakumea” omen zen gaia. “Banan bana hartu eta bertsolarien erantzunak ere ematen du zer pentsatua” dio.

1986ko EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

³ Egaña, Andoni (2017). “1982ko Txapelketa”. *Bertsolari Aldizkaria*, 107, 89-95.

1986ko Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko finala, martxoaren 23an ospatu zen, Donostiako Belodromoan. Euskal Herriko Bertsozale elkarteak antolatutako lehen txapelketa izan zen. Txapelketa horretan, 90 bertsolarik hartu zuten parte eta 21 kanporaketa izan zituen. Finalera, zortzi bertsolari heldu ziren (Sebastian Lizaso, Lopategi, Amuriza, Enbeita, Murua, Egaña, Sarasua eta Peñagarikano), zortziren artean, Sebastian Lizaso izan zen txapela eskuratu zuena.

Egañak dioenez, 1986ko martxoan hasi omen zen oholtzan. “Bertsolariok hartu genuen txapelketa nagusia antolatzeko ardura. Bertsolari Elkarte eta gero Bertsozale Elkarte izango zena sortzen ari zen”. “Acaro hitzak zer esan nahi zuen ez genekielako ez genion alergia atzekaldean zintzilikatzen duten alfonbra mitiko granateari. Gorria al zen? Joder! Orduan eta okerrago!”.

1989ko EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1989ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala, abenduaren 17an ospatu zen, Donostiako belodromoan. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak antolaturiko bigarrena izan zen. Txapelketa hobetan, guztira, zazpi saio burutu ziren, hiru final-laurden, hiru finalurreko eta azkenik finala. Finalean, zortzi bertsolarik hartu zuten parte (Jon Lopategik, Sebastian Lizasok, Xabier Euzkitzek, Andoni Egañak, Jon Enbeitak, Mikel Mendizabalek, Imanol Lazkanok eta Iñaki Muruak). Zortzietan irabazlea, Jon Lopategi izan zelarik.

1993ko EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1993ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa nagusiko finala, abenduaren 19an, Donostiako Belodromoan egin zen. Txapelketa guztian zehar, guztira 38 bertsolarik hartu zuten parte, horietatik zortzi heldu zirelarik finalera.

Finalean parte hartu zuten bertsolariak, Andoni Egaña, Xabier Euzkitze, Sebastian Lizaso, Unai Iturriaga, Jokin Sorozabal, Jon Enbeita, Angel Mari Peñagarikano eta Aritz Lopategi izan ziren. Andoni Egañak lortu zuen txapelketa honetan txapela.

Joxerra Gartziak⁴, bertsoaldi bereko, Andoni Egañaren bi bertso aipatzen ditu. Gaia honakoa zelarik: “Andoni, senarra; eta Jon Enbeita emaztea. Biok zarete fededunak. Zuen semetxo bakarra, gaixotasun baten ondoren hil da. Amari, ezbehar honi aurre egiteko, fedea ematen dio indarra. Aitak, orain bere zalantzak ditu.”

Hauk dira, bertsoaldi bereko Egañaren lehen eta hirugarren bertsoak:

1) Bizitzaren merkatua...

nago neka-nekatua.

Ez zen handia, inola ere,

haurran pekatua.

⁴Garzia, Joxerra (2017). “Egaña, plazan bezala txapelketan ere”. *Bertsolari Aldizkaria*, 107, 97-108

Zein puta degun patua:

gure ume sakratua...

Lotan al zeunden, ene Jaungoiko

madarikatua?

3) Sinimentsu dago ama,

haurra lurpean etzana;

nola arraio kendu digute

hain haurtxo otzana?

Hossanna eta hossana,

hainbat alditan esana...

Damu bat daukat: garai batean

fededun izana.

“Urte hartako apirilaren hiruan hila zen Lazkao Txiki, eta zortzi hilabete geroago Egañak txapela hari eskaintzeak zentzu betea zuela iruditu zitzaidan orduan” (Gartzia).

1997ko EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1997ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala, abenduaren 14an ospatu zen Donostiko Belodromoan.

Txapelketa honetan, 41 bertsolarik hartu zuten parte eta finalera, zortzi iristen direnez, zortzi iritsi ziren. Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Unai Iturriaga, Jexux Mari Irazu, Mikel Mendizabal, Aritz Lopategi, Jon Maia eta Maialen Lujanbio zehazki.

Txapelketa honetan irabazi zuen Andoni Egañak bere bigarren txapela.

2001eko EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

2001eko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala, abenduaren 16an ospatu zen Donostiako Belodromoan.

Txapelketan, guztira, 36 bertsolarik hartu zuten parte eta finalera heldu zirenak, honako hauek izan ziren: Andoni Egaña, Sustrai Colina, Igor Elortza, Jexux Mari Irazu, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Aitor Mendiluze.

Estitxu Eizagirrek⁵, Bertsolari Aldizkarian kontatu duenaren arabera, finala, Lujanbio eta Egañaren erakustaldi modura geratu omen zaio iruditegian. Aipatzekoa dio, Lujanbiok Mendiluzerekin ENA eta NAN txartelen artean egindako zirzarta.

2005eko EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

2005eko Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko finala, abenduaren 18an ospatu zen, eta BEC-en egin zen lehen finala izan zen gainera.

Final hau izan zen, Andoni Egañak txapela, laugarren aldiz irabazi zuena. Txapeldun orde ostera, Unai Iturriaga.

2009ko EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

2009ko Euskal Herriko Txapelketako finala, abenduaren 13an ospatu zen BEC-en-

Emakume batek, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa nagusian txapela irabazten zuen lehen aldia izan zen, Maialen Lujanbiok irabazi zuelarik hain zuzen. Joxe Agirrek jarri zion, Maialeni txapela.

Estitxu Eizagirrek, final hau “historikotzat” dauka. Lujanbiok, medikuaren paperean minbizidun umeak ikusita kantatutakoak datozkio gogora. Eta Arzallusek, autobusean ondoan inor eseri gabe doakion bidaiariaren azaletik kantatutakoak.

2013ko EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

2013ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia, abenduaren 13an, BEC-en burutu zen finalarekin eman zitzaion amaiera. Amets Arzallusek jantzi zuelarik bere lehen txapela.

“2013koa, ying-yangaren itzulia izan zen; oraingoan, Arzallus txapeldun, eta Lujanbio izan balitz, berdin, gustura... Txapela oholtzan galdu arte lehiazeko konpromisoari eutsi zion Egañak, eta hau izan zen Andonirik gabeko lehen txapelketa”, dio Estitxu Eizagirrek⁶.

2017ko EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

2017ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia, irailaren 23an hasi eta abenduaren 17an bukatu zen BEC-en. Mailen Lujanbiok eskuratu zuelarik bere bigarren txapela, txapel beltza, Sebastian Lizaso bertsolariak jarri zion.

⁶ Eizagirre, Estitxu (2017). “Eta zu? Non zeunden? *Bertsolari Aldizkaria*, 107, 141-148

METODOLOGIA

IKERKETAREN METODOLOGIA

Bertsolaritzaren bilakaera, euskararen XX eta XXI. mendeko historia, diskurtsoaren esanahia eta Bertsolari Txapelketa Nagusien nondik norakoak azaldu ditugu marko teorikoan. Marko teorikotik at, zenbait helburu planteatu ditugu. Helburu horiek lortzeko erabiliko dugun metodologiaren diseinua azalduko dugu orri hauetan.

XX eta XXI. mendeetan Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusietan euskarak izan duen presentzia eta horrekiko bertsolariak erakutsi duen jarrera aztertzea da gure helburu nagusia. Horretarako, Xenpelar Dokumentazio Zentroak dokumentatuta (idatzita) dituen bertsoak eskuratu eta aztertzeari ekin diogu.

Ikerketaren helburu nagusiak dioen bezala, XX eta XXI. mendeko bertsoak aztertzea da gure nahia (1980, 1982, 1986, 1989, 1993, 1997, 2001, 2005, 2009, 2013 eta 2017 urteak). Hala ere, kontuan eduki behar da aztertzeari ekin diogun momentuan zailtasun batzuk aurkitu ditugula. Izan ere, kantatu diren bertso guztiak ez daude dokumentatuta (idatziz). Hori dela eta, eskuan izan ditugunekin egin dugu aurrera.

Oztopoak oztopo, Xenpelar Dokumentazio Zentroak bertsoak dokumentatzen egindako lanari esker, bertso asko lortu ditugu eta analisi kuantitatibo bat burutuko dugu.

Honako hau da, ikerketa aurrera eramateko erabiliko dugun bertso kopurua:

- 1980. urtea:** 222 bertso dokumentatu eskuratu ditugu guztira eta 10 hautatu. Hau da, %4,50
- **1982. urtea:** 245 bertso dokumentatu eskuratu ditugu guztira eta 22 hautatu. Hau da, %9.
- **1986. urtea:** 3 bertso dokumentatu eskuratu ditugu guztira. Bat ere ez dugu hautatu.
- **1989. urtea:** 260 bertso dokumentatu eskuratu ditugu guztira. 12 hautatu. Hots, %4,61.
- **1993. urtea:** 235 bertso dokumentatu eskuratu ditugu guztira eta 4 hautatu. Zehatz esateko %1,70.
- **1997. urtea:** 235 bertso dokumentatu ditugu guztira eta 8 hautatu. Hau da, %3,40.
- **2001. urtea:** 113 bertso dokumentatu eskuratu ditugu eta horietatik 4 hautatu. Hau da, %3,53.
- **2005. urtea:** 129 bertso dokumentatu eskuratu ditugu guztira eta horietatik 5 hautatu. Hau da, %3,87.

- **2009. urtea:** 93 bertso eskuratu ditugu guztira eta horietatik 2 hautatu. Hots, %2,15.
- **2013. urtea:** 245 bertso eskuratu ditugu guztira eta horietatik 2 hautatu. Zehatz esateko, %0,81.
- **2017. urtea:** 245 bertso eskuratu ditugu guztira eta horietatik 2 hautatu. Hau da, %0,81.

-Guztira, 11 finaletatik, 2022 bertso eskuratu ditugu eta 71 bertso erabili ditugu. Euskara gai dutelako hautatu ditugu bertso hauek.

Ikerketarako metodologia bezala, eduki analisia erabiliko dugu, horregatik eduki-analisiaren oinarriko ezaugarriak azaltzetik aparte, zenbait autorek emandako definizio desberdinak azalduko ditugu. Behin eduki analisia modu orokor batetik ikusita, ikerketa honen eduki analisia ere azalduko dugu, jarraituko ditugun irizpideak zeintzuk diren aipatuz.

EDUKI ANALISIA

Jendarteko erakunde, elkarte, instituzio edo pertsonen eguneroko harremanetan material komunikatzailea sortzen da: gizarte burubideen lekuko den materiala. Izan ere, gizakiek esan edota idazten dituztenetan, euren helburuak, jarrerak, egoeren interpretazioak, ezagutzak, iritziak etab. adierazten dituzte. Ikertzaileek gizartegintzan sortzen diren komunikazio hauek ikertzeko eta behar bezala ulertzeko, era askotako teknikak sortu dituzte. Teknika horien artean kokatu behar da hain zuzen ere, eduki azterketa. Izan ere, eduki azterketa, testu batetik baliozko interferentziak ateratzeko prozedura desberdinak erabiltzen dituen ikerketa teknika da (Juaristi, 2013: 215). Komunikazio desberdinak aztertzek orduan, protagonismo berezia omen du eduki analisiak Ceak (1996) dioenez.

Krippendorffek (1990) dioenez, eduki analisiaren helburu nagusia, ezagutza ematea da eta ezaugarri nagusi horiek honela zerrendatzen ditu:

-Eduki analisiaren orientazioa, enpirikoa zein miaketazkoa da eta errealitateko fenomenoetara lotuta dago.

-Ikertzaileari, ikerketa plan bat programatzen komunikatzen eta ikuspuntu kritikoz ebaluatzen ustean dion metodologia propioa garatzen du.

IKERKETA HONEN EDUKI ANALISIA

Eduki azterketa egiteko, ez dago bide bakar bat. Eduki azterketa bakoitzak bere behar, helburu eta berezitasunak dituen heinean, zaila da eduki azterketak egiteko pausu zehatz batzuk aurkeztea. Edozein eduki azterketa egiterakoan kontuan hartu behar diren sei osagaiak honakoak dira: Datuak, laginketa, azterketa unitateak, erregistro kategoriak eta erregistroak, inferentziak eta azterketa (Juaristi, 2003:221).

1.Datuak: Eduki azterketarekin lortu nahi diren helburuak argi eta garbi finkatuta daudenean, aztergai den material komunikatzailea zehaztu behar da. Azterketaren datuak zentzuk diren ezagutu, bereizi eta definitu egin behar ditugu (Juaristi, 2003:221).

Datu hauek era ezberdinetakoak izan daitezke eta gure kasuan, 1980, 1982, 1986, 1989, 1993, 1997, 2001, 2005, 2009, 2013 eta 2017 urteetako Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaletako bertsoak hautatu ditugu azterketa hau aurrera eramateko.

2.Laginketa: Azterketaren helburuetarako balio dezaketen datuen zerrenda zabalegia eta zentzu honetan, erabilgarritasun gutxikoa bada, lagin bat aukeratu behar da (Juaristi, 2003:221). Gure kasuan, euskararekin zerikusia duten bertso guztiak hautatuko ditugu.

3.Azterketa-unitateak: Azterketa unitateak eduki azterketan oinarrituko den komunikazio elementuak dira. Hiru azterketa unitate bereizi daitezke: Laginketa unitateak, erregistro unitateak eta testuinguru unitateak (Juaristi, 2003:223):

-Laginketa unitateak: Ikertu nahi dituen datuetan ikertzaileak bereizten dituen zatiak dira. Unitate hauek, artifizialak edo naturalak izan daitezke (Juaristi, 2003, 212). Gure kasuan, 11 finaletatik, ikerketa egiteko hautatu ditugun bertsoak dira laginketa unitateak.

-Erregistro unitateak: Azterketarako garrantzitsua den informazioa agertzen delako, ikertzaileak laginketa unitatean bereizten duen eduki zatia da (Juaristi, 2003:223). Bertso bakoitzaren azterketa burutzeko orduan, erregistro unitate bat baino gehiago agertu daitezke eta horregatik, aldezturik finkatu ditugu ikerketa honetarako erabiliko ditugun erregistro unitateak.

Gure kasuan, batetik, hitzak izango dira erregistro unitatea eta bestetik, gaiak.

4.Erregistro kategoriak eta erregistroa: Erregistroa azterketarako aukeratutako erregistro unitate bakoitza (hitzak, esaldiak...) aurrez ikerketaren helburuen arabera definitu diren kategorietan kodifikatzearen prozesua da (Juaristi,2003:225).

Gure kasuan, erregistro unitate legez, hitzak eta gaiak erabiliko ditugu.

5.Inferentziak: Inferentziak egindako eduki azterketaren emaitzetan oinarritzen diren baina, era berean, mezuaren edukiarekin zerikusirik ez duten ondorioen formulazioa da. Inferentziak egiteko, aztergai diren komunikazioak ulertzen eta sortu diren testuinguruan kokatzen lagunduko dion oinarri teoriko sendo bat izan behar du ikertzaileak (Juaristi, 2003:226). Hau horrela, gure ikerketa, euskararen ikuspuntutik egindako ikerketa izango denez, komunikazio-ekintzaren testuingurua kontuan hartzea garrantzitsua da. Besteak beste; mezuaren jatorria, komunikazio sortzaileen izaera zein intentzioa eta mezua zeinena zuzendua dagoen ere puntu garrantzitsua da.

6.Azterketa: Eduki azterketaren munduan eman den eztabaida garrantzitsuena izan da eduki azterketa kuantitatiboa edo kualitatiboa izan behar den (Juaristi, 2003:226). Gure ikerketa kuantitatiboa izango da.

ANALISIA

Analisi honetan, guztira 11 txapelketa aztertuko ditugu. 1980-1982-1986-1993-1997-2001-2005-2009-2013 eta 2017 urteak. Esan beharra dago, “euskotar” eta “euskaldun” kontzeptuak ere, kontuan hartu ditugula zenbaketa egiteko orduan.

1980.URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA

1980. urteko txapelketa honetan, 222 bertso abestu zituzten guztira. Horietatik ondorengo hamar bertsoetan egin zioten euskarari aipamena. Hau da, %4,50 agertu zen euskara.

Txomin Garmendia, Ion Enbeita, Xanpun eta Jose Luis Gorrotxategik egin zuten aipamena, hasierako agurretan (goizean zein arratsaldean), puntu-erantzunetan, bakarkakoan eta bederatziko txikian, hain zuzen. Ion Enbeita izan zen gehien aipatu zuena, zehatz esate aldera, lau aldiz.

Hamar bertso hauetan, euskararen aldeko jarrera % 100 da, beraien diskurtsoan euskarari konnotazio positiboa ematen baitiote.

1982. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1982ko txapelketan 245 bertso abestu zituzten bertsolariek. Euskara 22 aldiz aipatu zutelarik. Hots, %9.

Agurretan, bakarkako ariketetan zein ofizioetan abestu zioten euskarari Enbeitak, Lazkanok, Amurizak, Garmendiak, Azpillagak eta Lopategik. Euskara gehien aipatu zuen bertsolaria Enbeita izan zen, zazpi aldiz aipatu baitzuen.

Bertso hauetan ere, euskararen aldeko jarrera % 100 da.

1986 URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

Urte honetan abestu ziren zazpi bertso eskuratu ditugu soilik eta hauetan ez dago euskararekiko aipurik.

1989 URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1989ko txapelketan 260 bertso abestu zituzten bertsolariek. Euskara 12 aldiz aipatu zutelarik. Hots, %4,61.

Puntu-erantzunetan, lau oinen ariketan eta ofizioetan aipatu zuten. Andoni Egañak eta Mikel Mendizabalek egin zieten aipamen gehien euskarari.

Euskararen aldeko jarrera % 100ekoa da.

1993. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1993ko txapelketan 235 bertso abestu zituzten bertsolariek eta euskara 4 aldiz aipatu zuten. Hots, % 1,70.

Hasierako eta amaierako agurretan egin zuten euskararen gaineko aipua, Peñagarikanok, Lazkanok, Lopategik eta Egañak.

Euskararen aldeko jarrera %100 da.

1997. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1997. urteko txapelketan, guztira, 235 bertso kantatu ziren eta 8 aldiz agertu zen euskara. Hau da, %3,40 aldeko jarrera.

Ofizioetan eta bakarkakoan aipatu zuten Mendizabalek eta Lopategik.

2001. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

2001. urteko txapelketan, guztira, 113 bertso kantatu ziren eta 4 aldiz agertu zen euskara. Hau da, %3,53.

Ofizioan, puntu-erantzunean eta bakarkakoan aipatu zuten Mailen Lujanbiok eta Unai Iturriagak.

4 bertso hauetan ere, bertsolariek euskararen aldeko jarrera %100ean erakusten zuten.

2005. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

2005. urteko txapelketan, guztira, 129 bertso kantatu ziren eta 5 aldiz agertu zen euskara. Hau da, %3,87. Hain zuzen, Unai Iturriaga eta Andoni Egañaren bakarkako ariketetan.

5 bertso hauetan ere, bertsolariek euskararen aldeko jarrera %100ean erakutsi zuten.

2009. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

2009. urteko txapelketan, guztira, 93 bertso kantatu ziren eta 2 aldiz agertu zen euskara. Hau da, %2,15. Hain zuzen, Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbioren hasierako eta bukaerako agurretan.

2 bertso hauetan ere, bertsolariek euskararen aldeko jarrera %100ean erakutsi zuten.

2013. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

2013. urteko txapelketan, guztira, 245 bertso kantatu ziren eta 2 aldiz agertu zen euskara. Hau da, %0,81. Hain zuzen, Sustrai Colina eta Amets Arzallusen bukaerako agurretan.

2 bertso hauetan ere, bertsolariek euskararen aldeko jarrera %100ean erakutsi zuten.

2017. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

2017. urteko txapelketan, guztira, 245 bertso kantatu ziren eta 2 aldiz agertu zen euskara. Hau da, %0,81. Hain zuzen, Amets Arzallusen hasierako eta bukaerako agurretan.

2 bertso hauetan ere, bertsolariek euskararen aldeko jarrera %100ean erakutsi zuten.

Hona

ONDORIOAK

URTEAK	1980	1982	1986	1989	1993	1997	2001	2005	2009	2013	2017
DATUAK (%)	%4,50	%9	-	%4,61	%1,70	%3,40	%3,53	%3,87	%2,15	%0,81	%0,81

Analisian ikusten denaren arabera, aztertu ditugun txapelketa guztietan izan du presentzia euskarak. Hala ere, txapelketatik txapelketara zenbakiak aldatzen joan dira, beheko taula honetan ikusi daitezke datuak zehatz.

Garziaren (2000) aintzat hartuz, bi garai barnebiltzen dira gure analisi honetan. Batetik *herriari kantatzetik publikoari kantatzera (1980-1998)* delakoa eta bestetik, *bertsolaritza multipolarra (1999-gaur egunera)* deiturikoa.

Ikusten denez, guztira, 2022 bertso eskuratu ditugu eta horretatik %34,38an aipatu dute euskara. 1982ko txapelketan izan zuen presentzia handiena, %9ko kopuruarekin. Gutxien aldiz, 2013 eta 2017ko txapelketetan, %0,81eko datuarekin.

Igoerarik handiena, 1980 eta 1982 urteen artean eman zen. 1980an, euskarari egindako aipamena %4,50ekoa izatetik, 1982an %9koa izatera igaro baitzen. 1989 eta 1993 urteen artean ere, jaitsiera nabarmena egon zen. 1989an, %4,61eko agerpena izatetik 1993an %1,70ekoa izatera igaro zelako.

Mende bakoitzeko banaka aztertuz gero, XX. mendean, 1197 bertso abestu ziren eta horietatik, %23,21 agertu zen euskara. 1982an gehien (%9) eta 1993an gutxien (%1,70). 1986an ez dugu euskararekiko aipurik aurkitu baina datu hori adierazgarria ez delakoan gaude, izan ere, urte horretako hiru bertso eskuratu ditugu soilik.

XXI. mendean guztira, 825 bertso kantatu zituzten eta horietatik %11,17ko presentzia izan zuen euskarak. 2005ean abestu zitzaion gehien euskarari (%3,87) eta gutxien aldiz, 2013 eta 2017an (%0,81).

Bi mendeen artean, salto nabarmena ageri da. XX. mendean %12,04 gehiago abestu zitzaion euskarari, XXI. mendean baino. XXI. mendean euskarak presentzia gutxiago izatearen arrazoietakoa bat, gaien aniztasuna delako gaude.

Kopuruak kopuru, jarrerari erreparatuz gero, bertsolariek uneoro egin diote euskarari gorazarre. Euskararen aldeko jarrera erakutsiz %100ean.

ERANSKINAK

1980. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1) HASIERAKO AGURRA.

Txomin Garmendia:

Anai-arrebak, besarkada bat
eskeñitzen den aurrena,
gu zortzi lagun probatu asmoz
bildu gera alkarrena;
griña hau da odolean
euskaldunak dakarrena,
egun eder bat izan dedila
hau da gauzik beharrena.

2) PUNTU ERANTZUNA.

Ion Enbeita:

Bertsozalez beteta
daukagu gaur balda
gustora igo dute
honerako malda;
konforme ez bada iñor
jendeari galda,
bertsoa beti izan da
euskararen salda.

3) BAKARKA.

Xanpun:

Jaun Iriondo, kezketan nago
benetan entzun ondoan,
izan daiteke zure esana
daukatela nik gogoan:
nola zenbaiten denbora egun
oharkabea badoan,
sarrera eskas izan ditzake
euskaltzale bat kanpoan.

4) BAKARKA.

Xanpun:

Balio ote du bertsu hontan
gehiagorik esatea?
hori gertatuz ez liteke gaur
euskotar bat izatea;
ez baldin badu sarrerik eta
harentzat zer den kaltea,
urrikaldu ta bederen hari
zabaldur laster atea.

5) BAKARKA.

Jose Luis Gorrotxategi:

Ni deiadarka esnatu naute
gau erdi hontan auzuak,
izan e gurean etziraden
halako une gozoak;
pake santuan bizi ginan da
hartu gaitu erasuak,
hau ikasi nun euskaraz eta
lehenbiziko errezuak,
hainbeste maite nuan kabia
azkenik erre du suak.

6) ARRATSALDEKO HASIERAKO
AGURRA.

Ion Enbeita:

Goizean doguz gure zentzunak
ahal genuen haiña behartu,
baina janari onari esker
barrero gara indartu;
ez al da poza euskal jendea
hola eitea alkartu?
Bertsolari ta euskaran partez
gura zaituet eskertu,
baita nik dedan besarkadarik
beroena ere hartu.

7) ARRATSALDEKO HASIERAKO
AGURRA.

Jose Luis Gorrotxategi:

Hau erantzuna eman duana
gaur Euskalerrri osuak,
edertasun hau ikusi eta
piztu dira gure suak;
zuek hortikan orru ta txalo
ta guk hemendik bertsuak,
hori ta gehio merezi baitu
gure euskara gaixuak.

8) PUNTU-ERANTZUNA

Ion Enbeita:

Batzuek eskubi ta
beste batzuek ezker...
zatitan bete dira
hamaikatxo bazter;
bide hortatik ez da
herriantzat ezer,
oraindik bizi gera
euskarari esker.

9) BEDERATZIKO TXIKIA

Ion Enbeita:

Euskalduna det nere

izena eta izana,

eta Euskadi nere

ama laztana;

orain kantuz natortzu,

ama, zuregana,

biok igaro daigun

une goxo bana;

nik zu zaitut jana,

zuretzat afana,

beti izan detana

gaur be zuri, ama,

betiko hartu nigan

daukadan dana.

10) AZKEN AGURRA.

Xanpun:

Lehendabiziko agurtzen ditut

egungo bi txapeldunak,

e zote du ba zerbait grazia

eman gaituzten egunak?

Gutxienetik gaur bilarazi

gaitu anai euskaldunak

eskerrak denei bihur detzagun

hemendik gaur zor tugunak

ta egun hunek izan detzala

oraindio biharamunak.

1982. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1) BAKARKA.

Ion Enbeita:

Gu urduri gaude baina

herria dago alai

ez dakit naizen egitan

bere txaloaren gai

euskera maite degunak

erdera degu etsai

e-naiz ni Baldara ioan

txapelik nik ez dut nahi

ikusten baidut herria

gure bertsoaren zai

gero berriz etorri ta

apalduko det lasai.

2) BAKARKA.

Imanol Lazkano:

Zuen karta dedala

gustoko notizi

nahi det adierazi

urtero nahi zaituztet

horlaixe ikusi

bainan txorakeritan

ez gero inor hasi

geure berria baita

munduan lehenbizi

hurrengo urterako

euskera ikasi.

3) BAKARKA.

Imanol Lazkano:

Hizkuntza horrek badu

bai bere gozua

ta maitasuntxua

hortatik osatzen da

geroztik bersua

bide hortatik jarrai

ezazu haurtxua

baldin bazera hortan

garbi ta zintzua

zuekin pasatuko

4) BUKAERAKO AGURRA.

Ion Enbeita:

Guretzat ez da egun hau izan
ez goxo ta ez biguna
baina herria zuretzako zan
gure bertsoen jarduna
gure euskara bultzatzea da
denok ein behar deguna
ia herritik urruntzen degun
etsaiaren gau iluna
hemen ez dago kontrariorik
bat da besteen laguna
ez dakit nor dan gaurko txapeldun
juraduak esan duna
baina badakit herri zu zera
benetako txapelduna.

5) HASIERAKO AGURRA.

Jon Lopategi:

Egunon denoi etorri zaigu
arriskua ta aukera
ondo merezi gura genduke
gaurko geure alogera
zuek entzun da lasa
neurtu gure jolasa
zutitu dedin euskera
daukagun dena emango dugu
hortan hitzekoak gera.

6) HASIERAKO AGURRA.

Xabier Amuriza:

Baldan bildu delarik
hainbeste euskaldun
bertsolaritza ez da alargun
txapel bakarra
joka bebarra
gu zortzi lagun
zuek entzun
guk erantzun
nola ez jardun
nola ez jardun
egun haundi bat hor
utzi dezagun.

7) HASIERAKO AGURRA.

Txomin Garmendia:

Agurtzen zaitut zu uritarra
eta berdin menditarra
irradi bidez guri entzuten
zauden gazte edo zaharra
urrutietan edo kartzelan
triste dagon euskotarra
aurrekalde hau ikusirikan
daukat aitortu beharra
euskaldun hutsez egiten degun
bilera klase bakarra.

8) BUKAERA EMANDA.

Txomin Garmendia:

Euskaldunak aspaldin
bizi gera plako
gure etsaiak berriz
hor dabiltz galako
ikusten degu hainbat
nola edo halako
euskal pamelietan
nahigabea pranko
arrazoirik ez degu
gutxi geralako.

9) HASIERAKO AGURRA.

Xabier Amuriza:

Berriz gatoz lanera
ta hortik kalkula
egun haundi hau ongi
buka dezagula
bi aldetara doa
gaur gure brujula
bersoak izan dezan
berritze mardula
eta euskara bizi
sekulun sekula.

10) ZORTZIKO HANDIA.

Garmendia:

Nere Lizaso lagun hau dago
ondo erten dan pozian
su aurrera joango da ta
geldituko naiz atzian
ni ere ez nizan geldituko
hain egoera motzian
galdera hoiek nere hizkuntzan
dotore izan bazian.

11) ZORTZIKO HANDIA

Txomin Garmendia:

Gure hizkuntza omen da baino
ez al dago narrastua
neure aita ta amare ere hortan
aspalditik zapuztua
egin ahalegin ikasten eta
ikasi orduko ahaztua
egia esan ezin zait sartu
gaurko hizkuntz baldartua.

12) BUKAERAKO AGURRA

Jon Azpillaga:

Herririk herri ibili arren
leku batetik bestera
inora ere ez laike jua
toki hobien eskera
zuek zerate herria era
gu zuen morroiak gera
denon artean salba ditzagun
Euskadi era euskera.

13) HASIERAKO AGURRA.

Angel Mari Peñagarikano:

Zahar eta gazte lehenen egunon
Jaungoikoak deizutela
zein gauz ederra bost mila
euskaldun
Baldan biltzea honela
nik hain det buru arina edo
hain det talentu txapela
ni baino hobeto egiten dunak
jantzi beharko du txapela.

14) HASIERAKO AGURRA.

Ion Enbeita:

Jan ditut zopa eta txuleta
agindu nuen bezala
zeinek pentsatu arratsaldean
hainbeste beteko zala
al dan ondoen beteko degu
bakoitzak bere itzala
gaurko txapela bertsoak eta
euskerak jaso dezala.

15) ZORTZIKO TXIKIA.

Azpillaga:

Alperrik dakartzate

horrenbeste saio

euskeraz egiteko

ez ote da jaiio

hasarre naiz ni ere

kristo ta arraiio

kate biak bai dira

erderaren leiho.

16) HASIERAKO AGURRA.

Ion Enbeita:

Nahiz ta kanpoan hotza dagoen

beroa dugu odola

negu erdian lorez jantzi da

Iparragirren arbola

nahiz ta Atotxan ospatuko dan

modan dagoen futbola

argi ikusten da gaur Baldan zein
dan

euskaldunaren kirola.

17) PUNTU-ERANTZUNA

Ion Enbeita:

Zazpi probintzi baina

herri hat bakarra

Hori da euskaldunak

degun diadarra

betiko galdu ez dedin

Euskal Herri zaharra

abertzaleok degu

elkartu beharra.

18) PUNTU-ERANTZUNA

Jon Azpillaga:

Ixil ixilik dago

entzule jendea

Holako gabe juanda

oraingo mendea

hemen somatutzen da

euskeraren kea

herria salbatzeko

hauxen da legea.

19) PUNTU-ERANTZUNA.

Lopategi:

Euskararen gudari

da bertsolaria

Lopategi

hargatik eskatzen dut

nik neure saria

txapelaren bila da

gaur gure haria

beteko ote duzue

nire eskaria.

20) PUNTU-ERANTZUNA.

Amuriza:

Euskararen gudari

da bertsolaria

Lopategi

hargatik eskatzen dut

nik neure saria

txapelaren bila da

gaur gure haria

beteko ote duzue

nire eskaria.

21) ZORTZIKO HANDIA.

Jon Lopategi:

Zuk etzazula horrela hartu

morrontzarako ajola

nagusi batek lehenago ere

xurgatu dizu odola

lagun antzera biziko gara

alkartu gaitezen hola

euskaldun ona baldin bazara

zabalik daukat txabola.

22) ZORTZIKO HANDIA.

Jon Lopategi:

Elkarte on bat egin dugu ta

hasi gaitezen lanera

egun bat hemen pasa ezker

ez zera joango behera

biok batera kantatutzeko

etorri zaigu aukera

gora artzaiak gora euskaldunak

eta mendiko euskera.

1989 URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1)PUNTU-ERANTZUNA.

Inaki Murua:

Beldurrik gabe esan

sentitzen duzuna

eskubide osoa

det beraz laguna,

tajuz burutu nahi det

nik gaurko jarduna,

gora jaso ditzagun

bertso ta euskaldunak.

2)PUNTU-ERANTZUNA.

Sebastian Lizaso:

Euskarak biltzen gaitu

ta zeinek zatitu?

biltzen gaitula hemen

edonork naba(r)itu,

politika zikinak

anaiak etsaitu,

hobe gaur bezalaxe

batera jarraitu.

3)PUNTU-ERANTZUNA.

Jon Enbeita:

Aita Barandiaran

guztion aitona

ondo dakigu bera

zein gizon ona,

egizko euskalduna,

egizko gizona,

eskaini nahi nioke

bera(r)i zoriona.

4)PUNTU-ERANTZUNA.

Iñaki Murua:

Urte berria dugu

laster ate joka

hori iristea (e)re

beraz aurki toka,

ia ez geran jarduten

alkarri mokoka,

irabazi dezagun

euskaldun borroka.

5)LAU OIN.

Mikel Mendizabal:

Gure apetitua
beti ezberdina,
baina gaurko honetan
azaldu da fina,
euskararen errotrak
hauxe du irina,
zer zoriona beti
halaxe bagina!

6)LAU OIN.

Andoni Egaña:

Pixkat txukun liteke
euskaldun bizitza,
nun ote da hortara
garamatzen giltza?
usteltzeari ei dago
Gernikan haritza,
kanpokoak kanpoko
geuk daukagu hitza.

7)HAMARREKO HANDIA.

Andoni Egaña:

Euskara dala medio sarri
heldzen diren albistiak,
ez izanarren gaur egunean
ilunak eta tristiak,
zail ez ote da jomuga hoiek
horren errez iristiak,
gure kaletan erderaz pranko
ari dirade gaztiak,
hori horrela alperrik dira
zifra ta datu guztiak.

8)HAMARREKO HANDIA.

Mikel Mendizabal:

Dato horiei hartzen diet nik
suspentso batzuen antza,
antzinatikan degun erroak
aurreraka garamatza,
kalean eta etxean ere
egon arren giro latza,
begira zazu Belodromo hau
pare gabeko baratza,
hau ikusirik barruan daukat
geroaren esperantza.

9)HAMARREKO HANDIA.

Andoni Egaña:

Kalen zehar bueltaren batzuk
eman izan ditut aurten,
ta gazteria guztiz erderaz
ez du polita ematen,
arrazoi dezu Belodromoa
dago orain irakiten,
baina ez zaite arrazoi txepel
ta eskax horrekin irten,
enara batek sekula ez du
udabarririk egiten.

10)HAMARREKO HANDIA.

Mikel Mendizabal:

Kalen zehar bueltaren batzuk
eman izan ditut aurten,
ta gazteria guztiz erderaz
ez du polita ematen,
arrazoi dezu Belodromoa
dago orain irakiten,
baina ez zaite arrazoi txepel
ta eskax horrekin irten,
enara batek sekula ez du
udabarririk egiten.

11)HAMARREKO HANDIA.

Andoni Egaña:

Nere laguna daukagu alai
ta ni nabil kopetilun,
egoerari irtenbiderik
ezin topatuan inun,
zuk esandako udaberria
ikusten det nahiko urrun,
arrazoi gabe "gora euskara!"
esanez zertako jardun,
euskal prentsa bat ez dun herria
nola izango da euskaldun?

12)HAMARREKO HANDIA.

Mikel Mendizabal:

Aipatutako euskal prentsa bat
laster egin dezakegu,
euskal eskola publikoa ere
berehala da eredu,
etorkizuna alaitasunez
gogor behar degu heldu,
bakoitzak bere arloan saia
ta ez gaitezen moteldu,
euskara zeinek salbatuko du
guk sinisten ez badegu?

1993. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1) HASIERAKO AGURRA.

Peñagarikano:

Iragarrita zengon bezela,
bete da bertsodromoa;
esan beharrik ez dago, berriz,
zein dan dakargun asmoa.
Ez ote gauden uste bezela
nik badaukat, bai, susmoa.
Kezka txiki bat daukat nerekin
eta agertzera noa:
hau euskeraren ispilu degu
edota espejismoa?

2)BUKAERAKO AGURRA.

Lazkano:

Barrupe hontan bildu gerana
ez da jendetza makala;
esan digute telebistatik
berrehun mila badirala.
Iruditzen zait gaur euskaldunak
kolore baten gerala;
bertsolaritzak aurrera ere,
orain artean bezala,
zatitutako gure herri hau
batutzen jarrai dezala.

3)BUKAERAKO AGURRA.

Lopategi:

Zoramenezko egun haundia
larritasun ta atsegin,
euskara zaharra sustraian eta
bertso lorea maitemin.
Mila zorion, Andoni haundi,
Unai, Aritz... denoi berdin.
Txapel zaharrari agur eginez,
aurrera berriarekin
segi ta kanta, kanta, mutilak,
giro hau galdu ez dedin!

4)BUKAERAKO AGURRA.

Egaña:

Zuek horrela ikusi eta
neroni jartzen naiz alai;
batasun honek beharko uke
euskaldungoaren dohai.
Ni lehengoa naiz buru gaineko
uztai edota, ez uztai.
Inor ez zegoen lasai,
urduritasuna etsai,
denak irristadaren zai.
Goizean goizik Lazkao Txiki
aipatu dute, nolana...
Zuen txaloak beretzat dira,
nere txapela ere bai.

1997. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1)ZORTZIKO HANDIA.

Lopategi:

Iruñeako Larraonara

joan ginan biok lehenbizi;

garai haietan euskara gendun

nahiko motel ta itsusi.

Egia esan gaur ere ez naiz

ni oso gustora bizi,

oraindik ere ezin baileike

dena euskaraz ikasi.

2)ZORTZIKO HANDIA.

Mendizabal:

Irakaslego euskaldunaren

163 urratsa zabalik dago;

modu hontako aukerarikan

ez gendun izan lehenago.

Nahiz eta alor guztietara

ez den iritsi zeharo

gure ametsa begizatzen det

geroz eta gertuago.

3)ZORTZIKO HANDIA.

Lopategi:

Unibertsal giro horretan

badago ikasle pranko

halan da guzti hizkuntza aldetik

bizi dira nahiko plako.

Euskeraz zerbait badago baina

halere aitortu beharko:

pauso gutxitxo ez al dira eman

hogeita bost urterako?

4)ZORTZIKO HANDIA.

Lopategi:

Kontzientzia piztea gendun

aspaldi baten helburu,

baina gaur egun zertan gabiltzan

ez nago oso seguru;

hara Gorieta gendun hor lehen ta

orain dago Salaburu;

horien eskuetan ehun urte barru

guztia euskeraz dugu.

5)ZORTZIKO HANDIA.

Mendizabal:

Aitortzen dizut alor askotan
oraindik dagon zaputza;
egindakorik ezin da uka,
eman daiogun laguntza;
batzuek goitik ta besteek behetik,
denok bide horri bultza,
ahal dan azkarren lortu dezagun
euskararen normalkuntza.

6)ZORTZIKO HANDIA.

Lopategi:

Dena euskaraz ikasi nahia,
hori gendun geure amets,
baina ikusten da hainbat urtetan
ez dala gertatzen errez;
164 bide hontatik jarraitu ezker
diotsut halabeharrez:
guk ez dugu hori ezagutuko
ta gure hurrek ere ez.

7)BAKARKA.

Mendizabal:

Nik euskeraz ez dakit eta
hau da zama!
Guztia ulertzeko
nolako lana!
Belodromo aldera
jendetza Aldana
bide-prozesioan
pozik da juana,
ulertzea dana,
dastatuz afana,
ez da hain bakana
187 inbidi sanoa da senti dudana

8)BAKARKA.

Lopategi:

Gerra garaian pasa genitun
oso momento ilunak,
faxisten contra hantxe genbiltzan
gazte t azahar euskaldunak,
halaxe joan baitziran bertan
gure gaua ta egunak,
guztiok gerrara junak,
214 ez diran une leunak!
Oraindik ere entzun ditzaket
memorian oihartzunak,
odolustuta han jausi ziren
mutiko honen lagunak.

2001. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1)8ko HANDIA.

Maialen Lujanbio:

Baina bidea nik libre daukat

ta zuk bete-bete trabaz;

ni gazteleraz inprimatua

ta zuberriz euskaraz.

Gure jabea beti dabil zu

beste baterako lagaz,

argazia ere muitua dezu

izango zuen dardaraz.

2)PUNTU-ERANTZUNA.

Unai Iturriaga:

Norberak nahi duena

lortu ahal baleza...

Hori da euskaldunok

daukagun amesa,

badakigu gainera

ez dala erreza

ta ez dela lagun ona

holakotan presa.

3)BAKARKAKOA.

Unai Iturriaga:

Denetik izan daiteke
komedia edo drama;
euskaldunok izan dugu
borrokalarien fama;
hitza bihurtu liteke
egunen batean arma;
alaba bihurtu leike
noizbait nere iloben ama.
Egindakoa eginda
herria ezin da bana;
orain artean eraman
badugu guk gure zama,
ez pentsa gero horrela
bukatuko denik dana;
jakin zazue: oraintxe
hasten da egizko lana.

4)BAKARKAKOA.

Maialen Lujanbio:

Lehen esaten "zer egingo degu
gure hizkuntza hiltzean?"
baina hori ere jasotzen gabiltz
orain hitzean hitzean.
Bertsolaritza ere ez dago
hain egoera hitsean,
ez dago behintzat garai bateko
kinka larriko trantzean.
Nere alabai esaten diot
zaharrek neri antzean,
arreta jarri dezala ongi
Belodromora sartzean,
begiratu luza dezala
jarriz han goiko ertzean,
ta esperantza dasta dezala
zuen txalo bakoitzean.

2005. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1)BAKARKAKOA.

Unai Iturriaga:

Berriro ere klasean

bueno zer moduz gabiltza?

Kaixo Omar aspaldiko!

Etorri zara Aritza.

Klasea nahiz eta dugun

igual kutrea ta hitsa

zuen begietan dago

ikasi nahiaren printza

zein etxeko lan gogorrak

fabrikakoa bortitza,

lana bukatu ta gero

hona praktika ta mintza,

euskaraz egin nahi hori

zuen geroko bizi

hori ez da subjuntibo bat

hori da lehen baldintza.

2)BAKARKAKOA.

Unai Iturriaga:

Astean bost egunetan

eta bi ordu gainera

zuek ekartzen nauzue

sarritan neure onera

guk beti pentsatzen dugu

hor goazela gainbehera

nahiz batzuei aoa bete

euskera eta euskera!

Nahiz administrazioan

erantzungo duten zera

zuek zeuen poltsikotik

ordaindu eta klasera

batzuk lanetik besteak

lanera doaz ostera

eskertu behar dizuet

etorri izana bera.

3)BAKARKAKOA.

Unai Iturriaga:

Beti baldintza txarretan
hori da gure problema
hizkuntz politika honek
ezarri digun kondena
azalduko dute gero
txosten polit baten dena,
hona etorri behar da
hori da baina lehena
gero etorriko dira
horrenbeste teorema
euskara eskasten dabil
batzutan ez da zuzena
eta ez da egokia
erdalgunean txarrena
egokiena da ikasi
eta erabiltzen dena.

4)BAKARKAKOA.

Andoni Egaña:

Ordiziarra naiz baina Santurtzin
hautatu nuen langintza
izan nintekeen zenbaitentzako
behar zuten argi printza,
ezker aldea erdalduna zen
neretzat a ze desditxa!
Euskaldun izan nahi zuten haiek
behar nituen zerbitza
ia hamarrak jo dute eta
nekaturikan gabiltza
hala're eutsi pixka batean
eta dantzatu lapitza,
ia euskeraz pentsatu eta
euskeraz luzatu hitza
ez al da hori euskaldun baten
lehendabiziko baldintza.

5)BAKARKAKOA.

Andoni Egaña:

Ia Edurne etorri zaite

orain pizarra aldera

ahal dan goxoen egingo dizut

ikasgaiaren galdera,

bueno mesedez ez hainbat neka

ez al zintezke hor gera?

kontatuko dut nik zenbat amets

egingo dudan aurrera:

hau sumatzen den zonalde dena

euskalduntzeko bezpera

ahalegin hortan zuek eta nik

lana daukagu ospera!

Eta gauza bat bururatu zait

hau jartzea buruz behera

nor-nori-nork hau nabarmena da:

zuek, ni eta euskera.

2009. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1)HASIERAKO AGURRA.

Unai Iturriaga:

Xalbadorrentzat osotasun bat
ziren herria ta hizkuntza
nik horren baitan ulertzen ditut
bertsoa eta sorkuntza.
Txapelketatik harago dago
kultur jardunaren funtsa
hizkuntza ez baita kanpaina baten
aurkezpen osteko luncha
herria ez baita lau urterik behin
zabaltzen den boto kutxa.
Norbanakoa da zuntza
sarea antolakuntza.
Beraz egun on Euskal Herria
bultza gogor! gogor bultza!
Bihar goizean gaurkoa ez dadin
izan anekdota hutsa.

2)BUKAERAKO AGURRA.

Maialen Lujanbio:

Gogoratzen naiz lehengo amonen
zapi gaineko gobaraz
gogoratzen naiz lehengo amonaz
gaurko amaz ta alabaz.
Joxei ta zuei mila zorion
miresmenaren zirraraz
ta amaituko dut txapel zati bat
zuek guztiontzat lagaz.
Gure bidea ez da errex
bete legez, juizioz, trabaz...
Euskal Herriko lau ertzetara
itzuliko gara gabaz
eta hemen bildu dan indarraz
grinaz eta poz taupadaz
herri hau sortzen segi dezagun
euskaratik ta euskaraz.

2013. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1)BUKAERAKO AGURRA.

Sustrai Colina:

Muxu handi bat zuri entzule

etxeke ta lagun berdin

ni Seaskako ikasle izan naiz

bertsolari izan aintzin

ta azkenaldian gertatzen ari

denak emana dit gaur min.

Sentitu, sortu, eragin

zaharretik berria egin.

Ikastola bat nahi dut Hendaian

Beskoitzen, Maulen, Garazin...

Bihar herri bat izan dezagun

ta euskaraz bizi dadin.

2)BUKAERAKO AGURRA.

Amets Arzallus:

Zerutik begira daude

Joxe ta Manuel Mari

ziega zulotik entzuten

beste euskaldun ugari

musu bat iparraldeko

bertso eskolako haurrari

lagundu nauten guziak

Olatz eta arreba bi.

Baina ni ez bainaiz he,em

neu sortu hutsean ari

aitarena den txapel hau

eskeintzen diot amari

haurra nintzela euskaraz

erakutsi zidanari.

2017. URTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1)HASIERAKO AGURRA.

Amets Arzallus:

BECen biltzen den Euskal Herriak

zenbat ertz, zenbat probintzi!

Probintzi hainbat euskalki eta

euskalki hainbat iritzi.

Iritziaren ziega hotzetan

preso daudenei gorantzi.

Bertsoa denen republika da

ta askatasun irrintzi

nahiz gezurra den ezin baikara

euskaraz ta libre bizi

gezur txiki hau zabal dezagun

ez dezagun hemen itxi

ta pixkanaka baietz egiak

transformatzera iritsi.

2)BUKAERAKO AGURRA.

Amets Arzallus:

Zorionak Maialen maite

lehen ere juxtuna hau zan!

Gaurko ta gero horra

nere burmuinak non dautzan!

Nahiz pixka't indarberritu

naizen eguerdiko pausan

ezin liteke osatu

dozenarik sei arrautzan.

Presoak ta herri honek

ez etzateko harlauzan

nik euskaratik sakondu

nahiko nuke subirautzan

ta Luhusok erakutsi

zuen txikien iraultzan

denek parte hartu behar dugu

bakearen artisautzan.

BIBLIOGRAFIA

- Aierdi, Xabier et.al (2007). *Bertsolaritza tradizio modernoa*. Bilbo: UPV-EHU
- Apalategi, Joxe Martin (2011). *Bertsolaritza. Politikaren diskurtsoa 2001eko txapelketa nagusian*. Donostia.
- Artetxe, Miren (2014). *Bertsolaritzaren eragina Lapurdiko bertso-eskoletako gazteen identitatean eta hizkuntza erabileran*. Soziolinguistika aldizkaria.
- Barroso, Nora (2010). *Trantsizio bizia*. ARGIA astekaria
- Calsamiglia, H. & Tusón, A.(2008). *Las cosas del decir*. Barcelona: Ariel
- Cea D’Ancona (1996). *Metodología cuantitativa estrategias y técnicas de investigación*. Madrir: SINTESIS SOCIOLÓGICA
- Egaña, Andoni (2017). “1982ko txapelketa”. *Bertsolari Aldizkaria*, 107, 89-95.
- Egaña, Andoni et al. (2001). *Bat-bateko bertsogintza*. Donostia: Bertsolaritza liburuak
- Eizagirre, Estitxu (2017). “Eta zu? Non zeunden? Bertsolari Aldizkaria, 107, 141-148
- Gartzia, Joxerra (2000). *Gaur egungo bertsolariaren baliabide poetiko erretorikoak. Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa*. EHU. Bilbo
- Gartzia, Joxerra (2012). *Bertsolaritza: euskarazko bat-bateko bertsogintzaren gaur egungo egoera, tradizioa eta etorkizuna*. Etxepare euskal institutua= instituto vasco Etxepare
- Gartzia, Joxerra (2017). “Egaña, plazan bezala txapelketan ere”. *Bertsolari Aldizkaria*, 107, 97-108.
- Igartua & Zabaltza (2012). *Euskararen historia laburra*. Etxepare euskal institutua= instituto vasco Etxepare
- Juaristi, Patxi (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak*. Zarautz: UPV-EHU
- Juaristi, Patxi (2018). *Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan*. ASMOZ fundazioa. UPV-EHU
- Krippendorff, Klaus (1990). *Metodología del análisis de contenido*. Barcelona: Paídos
- Larrañaga, Jexux (2013). *Jolas sakona: Txapelketaren prozesu errituala eta bertsolariaren arrazoi sortzailea XXI. mendeko agoran*. Doktorego tesia. Donostia: UPV-EHU

-Larrinaga, Ane (2008). “Kulturgileak mugimendu sozialen tradizioan: euskal intelektualak euskalgintzan”. Uztaro, 66, 87-103.

-Larrinaga, Olatz (2015). *Bertsolaritza eta euskararen normalizazioa gune erdaldunetan*. SAKONTZE EGITASMOA

-Lekuona, Juan Mari (1982). *Ahozko euskal literatura*. Donostia: Erein

-Peñagarikano, Anjel Mari (2017). “1980ko urtarrila zen, guretzat ilbeltza”. Bertsolari Aldizkaria, 107, 81-88.

-Van Dijk Teun A. (2000). *El discurso como estructura y proceso*. Barcelona: Gedisa.

-Virilio, P (1997). *El ciber mundo, política de lo peor*. Ediciones Cátedra: Madril

-Wenger, E (2011). Communities of practice: A brief introduction. (<https://scholarsbank.uoregon.edu/xmlui/bitstream/handle/1794/11736/A%20brief%20introduction%20to%20CoP.pdf?sequence=1>)

-Xenpelar Dokumentazio Zentroa (2019). “Txapelketen historia”. (<https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolaritza/historia/txapelketak>)